



Bizkaiko Zubiak bere 125. urteurreneko ekitaldien ospakizunari ekin dio erakunde nagusien inplikazioarekin

Ekimenak ahalik eta bisitari gehien erakarri nahi ditu

Urteurren hau 2018 Kultura Ondarearen Urte Europarrean ezartzen da

Getxo, 2018ko otsailak 7

Gaur, 2018ko otsailak 7, asteazkena, Bizkaiko Zubiaren distira oso berezia izan da. Bizkaiko industrializazioari eta burdinaren kulturari dagokien ikono historiko honekin lotutako erakunde nagusienek pistola-tiro bateratua jaurti nahi izan diote bere 125. urteurrenaren urte honi, argi pizte sinboliko baten bidez.

Ekitaldira bertaratu dira *Marta Uriarte Bizkaiko Transbordadoreko Presidentea; Asier Atutxa Portuko Agintaritzaren Presidentea; Mikel Torres Portugaleteko Alkatea eta Imanol Landa Getxoko Alkatea, Lorea Bilbao Euskera eta Kultura Foru Diputatuarekin eta Alfredo Retortillo Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Aholkulariarekin batera.*

Ekimen bateratuaren helburua da **bisitarien ahalik eta kopuru handiena erakartzeko esfortzuak koordinatzea**, turismo eskaintza irmoarekin hala nola estatuko eta nazioarteko merkatuetako sustapen ekintza ugarietako Zubiaren presentzia nabarmenarekin, humanitatearen ondare eta munduko lehenengo zubi transbordadore bezala dagokion balioa azpimarratuz.

Hain zuzen munduko lehenengo Zubi Transbordadorea eta Humanitatearen Ondare bezala aldarrikatutako bakarra izateagatik, eredugarria izan nahi du gaur egun Frantzian, Ingalaterran, Alemanian eta Argentinan existitzen diren beste 7ak homologatzeko eta ezagutzera emateko orduan. Beraz, 2018ko ekitaldi agendan Bizkaiko Zubi anfitrioi izango da, zehazki uztailan, **Munduko Zubi Transbordadoren Kongresuan**.

Urteurrenak, bestalde, bidea ematen du programak, proiektuak eta sareak martxan jartzeko, **industria turismoa bultzatuko** dutenak Bizkaiko Zubiaren eta Euskadi osoaren inguruan, epe ertain-luze batean. Zentzu honetan, urteko azken hiruhilekoan **Industria Turismoaren Foroa** ospatuko da Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

“Gure ondarea: zeinetan iragana etorkizunarekin topatuko den” lemapean, 2018 **Kultura Ondarearen Urte Europarra** (#EuropeForCulture) izendatua izan da. 125. urteurren honetako sustatzaileek hiritarrak animatu nahi dituzte gure kultura ondarea ezagutzera, estimatzera eta

harekin konprometizera, horrela errealitate, kultura eta gizarteen arteko batasunaren ikur hau iraganaren ondare soila izateaz haratago, gure etorkizunerako ezinbesteko baliabide modura ikusia izan dadin.

Zubiaren ingurunea kultura, kirol eta festa ekitaldietarako eszenatokia izango da 2018an zehar. Bizkaiko Zubiak eta Getxoko zein Portugaleteko Udalek antolatutako eta babestutako ohiko programazioa oinarritzat hartuta, hiritarrek ekintza ugari gozatu ahal izango dituzte. Ekitaldi programa urtean zehar zehaztuko da eta zubiaren webgunean jarraitu ahal izango da: www.puente-colgante.com

BIZKAIKO ZUBIARI BURUZ, HALABER ZUBI ESEKIA IZENDATUA

Zubiaren jatorria XIX. mendearen amaieran ezartzen da. Maria Cristinaren erregeordetzako urteak dira (1885-1902), Alfonso XIII bere semea adingabea zen garaikoak.

Bizkaiko Zubia eraikitzean bilatutako helburua zen, nabigazioa eragotzi gabe Nerbioi ibaiaren ahoko marjina guztiak uztartzea.

Diseinuaren obra, halaber Madrilgo Erretiroaren Parkeko Kristalezko Jauregiaren eraikuntzan partaide izategatik ospetsua zen Alberto Palacio Elissague Jaunari dagokio. Ferdinand Joseph Arnodin ingeniari frantses jauna obraren eraikuntzaz arduratu zen, Bilboko Santos López de Letona ehungintzako enpresari jauna proiektuaren babesle eta finantzatzaile nagusia izan zen bitartean.

Azken urteotan, egungo *Bizkaiko Transbordadorea S.L.* elkarte gestoreak inbertsio garrantzitsuak egin ditu, Bizkaiko Zubiaren jarduerak berritzeko eta dibertsifikatzeko asmoz, alderdi turistikoak bultzatuz, alde batetik Zubiak ingeniari obra berezi modura erakargarria izategatik eta, bestetik, 2006ko UNESCO-ren aldarrikapenari dagokion Munduko Ondarearen bere goeragatik.

Hasiera batean transbordadorea izateko zegokion misioa betetzeari utzi gabe, gaur egun lurraldeko polo turistiko garrantzitsu modura erabiltzen da.

Informazio gehiago:

Think Chic.

Macarena Bergareche

mbergareche@thinkchic.es / 639 18 80 94